

**ETXEBIZITZA ERREHABILITATU EDO BIRGAITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA-ORRIA
(OBRA PARTIKULARRAK)
AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

1. Aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra
<ul style="list-style-type: none"> • Obrak egiteko udal baimena/eskaera eta ordaindutako tasak, halakorik izanez gero. • Obren aurrekontua (kontratututako gremioei dagokiena), partidaren arabera banakatuta, partida bakoitzaren neurketa eta precio unitarioa adierazita. Gainera, 1, 2 eta 3 motetako obrak ere sartu beharko dira; horiek EITaren amaierako irizpenean jasotzen dira, halakorik egonez gero. Konponketa horiek ordurako eginda egongo balira, EITaren akatsak zuzendu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da. • Obrak hala behar izanez gero, teknikari eskudunaren proiektuaren kopia eta proiektua egin duen teknikariaren ordainsarien kopia. • Familia bakarreko etxebizitzek, eraikin atxikiek edo baserriek; obrak kontserbaziorako, irisgarritasun unibertsalerako edo efizientzia energetikorako badira, dagokion laguntzaren eskaera aurkeztu baino lehen egin beharko da EITa, eraikinaren antzintasuna kontuan hartu gabe. EITa paperean eta PDF formatuan aurkeztu beharko da, eta higiezina kokatuta dagoen udaleko sarreraerregistroko zigilua eduki beharko du. • Birgaitu beharrekoaren argazkiak.. • Obrak hasteko eskaera • EATn 1., 2. eta 3. mailetako esku-hartzeetan antzemandako hutsuneak konpondu izanaren ziurtagiria. Hori 80/2014 Dekretuaren III. Eranskinaren ereduarekin bat aurkeztu beharko da (EHAA 101. zk., 2014/05/30eko). Gainera, teknikari eskudun batek sinatuta eta paperean zein PDF formatuan aurkeztu behar da, eta dagokion udaleko sarrera-erregistroko zigilua eduki beharko du.
2. Zerga-arinketa eskatu behar bada, 1. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:
<ul style="list-style-type: none"> • Eskatzaile guztien NANaren fotokopia • Higiezinaren jabetza egiaztatzeako agiria (eskrituraren fotokopia edo Jabetzaren Erregistroaren argibide-ohar soila). • Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriaren fotokopia. • Atzerritarren kasuan: <ul style="list-style-type: none"> - Iraupen luzeko bizileku-baimena - Europako Erkidegoko Batasuneko kasuan, atzerritarren identifikazio zenbakia jasotzen duena (NIE). Pasaporte ez da baliozkoa izango.
3. Mailegua eta/edo dirulaguntza eskatu behar bada, 1. eta 2. puntuetan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:
<ul style="list-style-type: none"> • Erroldako udal ziurtagiria eguneratua, birgaituko den etxebizitzan elkarrekin bizi diren pertsona guztiak adierazten dituen, edo bestela, obra- amaiera egiaztatzen den egunetik hiru hilabeteko epean udal ziurtagiri hori aurkezteko konpromisoa. • Diru-laguntza eskatuz gero: Obrak azpikontratatu behar direnean eta birgaitze-jarduketaren aurrekontu babesgarria 40.000,00 eurotik gorakoa denean, BEZik gabe, kontratua burutu aurretik gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko dira, salbu eta, obren ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan eskaintza horiek egiten dituzten enpresen kopuru nahikoa ez badago. Aukeraketa berariaz justifikatu beharko da memoria batean, baldin eta proposamen ekonomiko onuragarriena ez bada. Diruz lagundu daitekeen kostua 50.000,00 eurotik gorakoa bada, BEZa kenduta, kontratua idatziz egin beharko da, eta, gainera, organo kudeatzaileak eskatu ahal izango du obrak hasi aurretik hark baimena ematea. • Birgaitze jarduketaren titularren diru-sarreraren ziurtagiriak <ul style="list-style-type: none"> • PFEZ aitortu beharra baduzu edo aitortu baduzu: <ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitza-eskaera hau aurkezten denean mugaeguneratuta dagoen azken zergaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpen(ar)en fotokopia/k. Aitortpenak/ek Foru Ogasunean, Kutxan edo Banketxean aurkeztua izanaren zigilua eraman behar du/te - Kotizazio gabeko prestaziorik jasoz gero, dagokion ziurtagiria. • PFEZ aitortu beharrik ez baldin baduzu (eta ez duzu egin): <ul style="list-style-type: none"> - Kasu guztietan, <ul style="list-style-type: none"> - Foru Ogasunaren ziurtagiria, zergaldi horretan (eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken ekitaldian) PFEZ aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen duena. - Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra egina. (901502050 www.seg-social.es).
<p>Besteren konturako langilea bazara:</p>

- Zergaldi horretan kontzeptu guztiak direla-eta jaso dituzun sarrera gordinak adierazten dituen agiria, enpresak edo enplegu-emaileak egina.

Pentsioduna bazara edo bestelako beka, prestazio edo sorospenik (gizarte ongizatekoak barne)

- Jasotzen badituzu, dagokion egiaztagiria, ekitaldi horretakoa..

- Irisgarritasunerako dirulaguntza berezia eskatuz gero, 65 urte baino gehiago dituela egiaztatu beharko du, edo mugikortasun urriko desgaitasunaren edo desgaitasun sentsorialaren ziurtagiria.